



Osakidetzan ere, aukeratu euskara!

Araba Euskaraz euskaldun eta euskaltzaleon topagune erraldoia izango denez, Osakidetzak abagunea baliatuko du euskara, pazienteekiko harremanetan, lehentasunezko hizkuntza aukeratzeko kanpainari beste bultzada bat emateko. Izan ere, Osakidetza Euskara Planaren arabera, pazienteek eskubidea dute erabakitzeke zein hizkuntza erabili nahi duten osasun zerbitzuekiko harremanetan, ahozkoetan zein idatzizkoetan, eta Osakidetzak pazienteei zein hizkuntza lehenesten duten galdetu beharra du. **Bada, Osakidetzak stand bat jarriko du Ikastolen festan, goiz eta arratsalde, Prado Parkean.** Gasteiza bertaratuko diren milaka pertsoneri tramite hori erraz egitea ahalbidetzeko, euskara lehentasunezko hizkuntza gisa aukeratu dezaten, dagoeneko 215.000 herritarrek baino gehiagok egin duten moduan.

Pazienteen lehentasunezko hizkuntza

Lagundu egiguzu hobetzen:

Aukeratu zure hizkuntza!

Osakidetzak aukera ematen dizu gurekin zein hizkuntza erabili nahi duzun esateko, hau da, esateko zein den zure lehentasunezko hizkuntza, euskara ala gaztelania.

Euskara aukeratzen baduzu, euskaraz hitz egingo dugu zurekin, eta, ahal den neurrian, profesional euskaldunak atendituko zaitu.

Nola adierazi zein hizkuntza aukeratu duzun?

Hiru era daude aukeraketa egiteko:

- Zeure osasun zentroko harrera-gunera hurbildu, eta adierazi zein den zeure hizkuntza-aukera.
- Zeure familia-medikuari edo erizainari adierazi kontsultara zoazenean.
- Etxetik ere egin dezakezu hautua, zuk zeuk, Osasun Karpeta-ren bitartez. Horretarako, galdetu zeure osasun zentroan nola lortu Osasun Karpetarako sarbidea.

Horrela, eskaintzen dugun zerbitzuaren kalitatea hobetzen beste aurrerapauso bat egin nahi dugu.



Osasun Karpetari buruzko informazio gehiago:



Euskaraz bai sano!



Una de las novedades que se llevarán a cabo el próximo 16 de junio en el marco del Araba Euskaraz, es un taller de primeros auxilios organizado por Osakidetza en el parque del Prado, uno de los lugares donde se desarrollará la fiesta. Por primera vez en una fiesta de estas características, 40 niños y niñas de ocho años van a aprender, jugando y en euskera, nociones básicas que todos debiéramos saber a la hora de enfrentarnos a una situación de emergencia. Impartido por Beatriz Noarbe, enfermera integrada de Araba (OSI) y responsable del programa "niños y niñas socorristas-Ume sorosleak", estos niños y niñas aprenderán cómo actuar si tienen que llamar a una ambulancia o qué decisiones adoptar si en esos momentos están solos y viven una situación que requiere de ayuda médica. Se realizarán dos talleres, uno por la mañana y otro por la tarde. De una duración de casi hora y media, los niños y niñas serán parte activa de los mismos, son talleres prácticos, e irán rotando para realizar distintas funciones. Desde Osakidetza se considera fundamental que estos chavales sepan desde pequeños cómo enfrentarse a situaciones reales que pueden ocurrir en cualquier momento. Una actuación rápida, se admite, puede salvar vidas. Estos talleres se están llevando ya a cabo en distintos centros escolares y la acogida es excelente. En este Araba Euskaraz 2019 habrá oportunidad también de participar en ellos pero para ello habrá que realizar una inscripción previa.

BEATRIZ NOARBE, ARABA ESİKÖERIZAINA

Umeentzako bi tailer antolatu dituzue Araba Euskaraz egunerako. Zein da asmoa?

Batetik, lehen sorospenei buruzko ezagutzak edukitzeak duen garrantziaz sentsibilizatzea eta, bestetik, umeak ikasteko kapazak direla erakustea.

Tailerretan 8 urteko umeek hartuko dute parte. Adina kontuan hartuta, nola planteatuko dituzue tailerrak? Umeak hain txikiak izanik, adi egon daitezen gauza errazak eta argiak erakutsiko dizkiezue, ezta?

Umeek jolasten ikasten dute. Erakutsiko diegu zer eta nola egin egoera larri batzuetan, eta gero haiek errepikatuko dute antzerki moduan. Adibidez, telefono irudi handi bat daukagu horma batean jarrita. Bada, pertsona bat konortea galduta aurkitzen dutenean (behin ziurtasun jarreran ipini eta gero) 112 telefonora deitu behar dute laguntza eskatzeko. Denek parte hartuko dute jardueretan, batzuetan sorosle gisa, besteetan biktima moduan. Tailerrak ordu eta piko irauten du gehien jota.

Aurtengoa lehenengo esperientzia izango da Araba Euskaraz-en, baina beste leku batzuetan horrelakoak egin dituzue jada. Nola hartzen dute umeek iniziatiba hau? Zergatik erabaki zenuten programa martxan jartzea?

Ba asko gustatzen zaie, lagundu ahal dutela konturatzen direlako. Arrakasta handia du guraso eta irakasle artean ere, gauza praktikoak eta erabilgarriak direlako. Normalean, tailerra eskoletan egiten dugunean inkesta bat egiten dugu bukatutakoan, eta bikain ipintzen digute.

Modu bat da umeek gure lana ezagutu eta zerbitzuak ondo erabil ditzaten, eta haiek ere sentitu dezaten protagonistak izan direla egoera horietan.

Garrantzitsua da umeek eta gazteek lehen sorospenak jakitea, ezta?


Bai, umeek, gazteek eta nagusiek! Beste herri batzuetan lehen sorospenak oinarriko hezkuntzaren parte bat dira. Onena litzateke guztiok egoera larri bat identifikatzeko gai izatea, lehen sorospenak (adina eta ezagutzaren arabera) egiteko gaitasuna edukitzea eta, ondoren, Osakidetzaren zerbitzu egokienera jotzea.

Zure ustez, lehen sorospenei buruzko ikastaroak egin beharko liraitenke derrigorrez eskoletan?

Bai, oinarriko kontu bat da, modu osasungarrian jaten edo eskuak garbitzen jakitea bezala.

Zer egin dezakegu gurasook?

Beraien osasunaren protagonistak direla erakustea, zauri arinak garbitzen irakastea, nori deitu behar duten zerbait gertatzen bada... Gauza horiek.



LEHEN LAGUNTZEN TAILERRA TALLER PRIMEROS AUXILIOS

PRADO PARKEA · PARQUE DEL PRADO

Ekainak 16 de junio (ARABA EUSKARAZ)

11:30-13:00 (aprox) / 15:30- 17:00 (aprox)

PLAZAS: 20 niños y niñas en cada turno (40 plazas total) Hasta completar aforo
IZENEMATEA - INSCRIPCIÓN: arabaeuskaraz@armentiaikastola.eus

en este mismo horario, osakidetza instalará un stand para que todas las personas que lo deseen puedan pedir que su idioma de preferencia sea en euskera.

